

<p>Koma bikoitzak , ,</p>	<p>1. Elikagaien segurtasunaz arduratzen diren erakunde batzuek adierazi dute, <u>duela gutxi</u>, ez dagoela arazorik abere klonatuen produktuak jateko. Kontsumitzaileek, <u>segurtasunak kezkatuta</u>, ez dute begi onez ikusten halako janariak merkaturatzeko aukera. Esaldian TARTEKIAK sartzeko: esaldi batean, tartekatuta jartzen den azalpena, zehaztapena edo argigarria. (Arau honek lehentasuna du)</p> <p>2. EGek, <u>zientziaren eta teknologia berrien etikaz arduratzen den taldeak</u>, gaiari buruzko iritzia eman zuen. EGek, <u>zientziaren eta teknologia berrien etikarako taldeak</u>, gaiari buruzko iritzia eman zuen. AZALPEN-APOSIZIOETAN, hau da, jarraian eta alboan jartzen diren azalpenetan.</p> <p>3. Ez, <u>entzuleok</u>, ez, ez dago batere argi zein diren klonazioaren eraginak. Eta zuk, <u>Jon</u>, zer iritzi duzu gai honetaz? DEIKI EDO BOKATIBOETAN, hau da, dei egiteko erabiltzen diren izenetan, erdian doazenean. Hasieran edo amaieran badoaz, koma bakarria jarriko dugu.</p> <p>4. Erakunde batzuek adierazi dute ez dagoela arazorik abere klonatuen produktuak jateko. EGEn ustez, <u>ordea</u>, ez da etikoa abereak klonatzea eta haiek haztea, gizakientzat elikagaiak egiteko. Testu-antolatzaile batzuk koma artean joaten dira: , ordea, ... , ostera, ... , berriz, ... , aldiz, ... , ba, ... , behintzat, ... , nonbait, ... , seguru asko, ... , jakina, ... , noski, ... , bestela, ... (eta antzekoak)</p>
<p>Koma ,</p>	<p>1. Elikagaien segurtasunaz arduratzen diren erakundeek adierazi dute ez dagoela arazorik abere klonatuen produktuak jateko. / Abere klonatuen produktuak jateko ez dagoela arazorik adierazi dute elikagaien segurtasunaz arduratzen diren erakundeek. SUBJEKTUAREN, ADITZAREN ETA PREDIKATUAREN (EDO OSAGARRI NAGUSIAREN) ARTEAN, EZ da komarik jartzen, hiru esaldi-zati horiek edozein ordenatan egonda ere. TARTEKIA BADAGO, KOMA BIKOITZAK jarri behar dira.</p> <p>2. Egunero egiten dio bisita amamari, igandeetan izan ezik. Esaldi baten zati nagusiak komaz bereizten dira.</p> <p>3. Abere klonatuek dituzten osasun-arazoak kontuan hartuta, ez da etikoa abereak klonatzea. Abere klonatuek dituzten osasun-arazoak kontuan hartuta jarri dira aditu batzuk klonazioaren aurka. Abere klonatuek osasun-arazoak izan arren, askok teknika horren alde egin dute. Mendeko perpausaren ondoren perpaus nagusia datorrenean (baldin eta mendeko perpausa galdegaia EZ bada).</p> <p>4. Estatu batzuek debekatu egin dute aberen klonazioa, animalien osasun-arazoak kontuan hartuta./ Estatu batzuek adierazi dute <u>ez dutela onartuko abereen klonaziorik</u>. (galdegaia). Estatu batzuek aspaldi adierazi dute <u>ez dutela onartuko abereen klonaziorik</u>. (predikatua edo osagarri nagusia). Europako estatuak adituen batzordea eratu dute <u>abere klonatuei buruzko informazioa aztertzeko</u>. (predikatua edo osagarri nagusia). Perpaus nagusiaren ondoren, mendeko perpausa datorrenean (baldin eta mendeko perpausa galdegaia EZ bada, edo predikatua edo osagarri nagusia EZ bada).</p> <p>5. Hainbat alderdi aztertu dituzte: haragiaren eta esnearen osagaiak, nutrizio-ezaugarriak, osagai berriak egoteko aukera, abereen osasun-egoera eta abar. Zerrendetako osagaiak bereizteko.</p> <p>6. <u>Estatu Batuetan</u>, zenbait erakunde adierazi dute ez dagoela arazorik abere klonatuen produktuak jateko./ <u>Estatu Batuetan adierazi dute</u> ez dagoela arazorik abere klonatuen produktuak jateko; European, ostera, ez./ <u>Ordutik hona</u>, azterketekin jarraitu dute./ <u>Ordutik hona jarraitu dute</u> azterketekin. Ondorio horretara <u>heltzeko</u>, denbora luzez aritu dira ikertzen. / Ondorio horretara <u>heltzeko aritu dira</u> urte luzez ikertzen./ Denbora luzez aritu dira ikertzen, <u>ondorio horretara heltzeko</u>. Esaldi hasierako mintzagaiak edo osagarriak (non, noiz, zertarako...) koma du, galdegaia ez bada. Atze-atzean doanean ere eraman dezake.</p> <p>7. <u>EGEn ustez</u>, ez da etikoa abereak klonatzea eta haiek haztea, gizakientzat elikagaiak egiteko. <u>Jaiotzen diren kumeei dagokienez</u>, askok garuneko edema eta bestelako anomaliak izaten dituzte. <u>Hori dela eta</u>, hainbat talde klonazioaren aurka daude. <u>Alde batetik</u>, klonak ohi baino handiagoak izaten dira. Esaldi hasierako lokuzio-osagarriek eta testu-antolatzaileek koma dute.</p> <p>8. Zu abere klonatuen alde zaude; <u>ni, aurka</u>. / Hiru bider lau, hamabi. / Zenbat buru, hainbat aburu. / Abere kolantuak, platerean. Subjektuaren eta osagarrien artean, aditz osoa falta denean.</p> <p>9. Muturreko iritziak ere badaude abereen klonazioaren eztabaidan, <u>bai</u> aldekoen artean, <u>bai</u> aurkakoen artean, aurreko lerroetan ikusi dugunez. Koordinazio distributiboetan.</p>

	<p>10. Estatu Batuetako FDA erakundeak iaz eman zuen iritzia, <u>baina</u> lau urte eman zituen animalia klonatuekin egindako produktuak aztertzen. Abere klonatuek biodibertsitatean eragina dute, <u>zeren</u> klonek populazioa gero eta homogeenagoa bilakatzen baitute. , BAINA ... / , ZEREN (ETA) ... komaren ondoren joaten dira.</p> <p>11. Animalia klonatuek pairatzen duten oinazea <u>eta</u> dituzten osasun-arazoak kontuan hartu behar dira. Klonek beste abere baten informazio genetiko bera dute, <u>eta</u> animalien populazioa gero eta homogeenagoa bilakatzen da. Aztertu dituzte klonen haragia, esnea <u>eta</u> osasun-egoera, <u>eta</u> ez dute emaitza kezagarriarik aurkitu. Ez omen dago arazorik abere klonatuak <u>edo</u> haiekin egindako produktuak jateko. Klonazioz sortutako animaliek besteek baino askoz osasun-arazo gehiago izaten dituzte, <u>edo</u> hori da, behintzat, EFSAren txostenetik atera daitekeen ondorioetako bat. Ez dakit zer egin oporretan, <u>edo</u> Iparraldera <u>edo</u> Landetara joan, <u>edo</u> bertan ibili. Zer duzu nahiago, lagunekin atera <u>ala</u> nirekin etorri zinemara? Kantuan ibili zen, ala bestelako lanak egitea otu zitzaion? Aldaketa benetakoa den jakin behar da, <u>ala</u> itxurakeria hutsa. (<u>g</u>) ETA ... / (<u>g</u>) EDO ... / (<u>g</u>) EDOTA ... / (<u>g</u>) ALA ... Testu-antolatzaile hauek ez dute izaten komarik ondoren. Aurrean izan dezakete, baldin eta esaldi zati desberdinak lotzen badituzte: hitz, subjektu, sintagma, osagarri edo perpaus desberdinak.</p> <p>12. Beste faktore batzuek <u>ere</u> eragiten dute salmentetan. ... ERE Testu-antolatzaile honek ez du komarik izaten.</p> <p>13. Ez ditut produktu transgenikoak erosten, biologikoak <u>baizik/baino</u>. Ez ditut produktu transgenikoak erosten, <u>baizik eta</u> denda berezietan saltzen dituzten produktu biologikoak. Ni zu <u>baino</u> askoz arduratuago nago ekologiaz. Ni askoz arduratuago nago ekologiaz, <u>zu baino</u>. , ... BAIZIK / , BAIZIK ETA ... / , ... BAINO komaren ondoren joaten dira.</p> <p>14. Ni, ez nago ados abereak klonatzearekin (= Niri dagokidanez, ez nago ados abereak klonatzearekin) Mintzagaia indartu nahi dugunean (ahozko pausaldi ertaina egiten dugu). Komaren lehenengo arauaren salbuespena da honako hau.</p> <p>15. Bai, Jauna! Enuntziatuak laburrak direnean (nahiz eta ahozko pausaldirik egin ez).</p> <p>16. <u>Ala</u>, zer polita! / <u>Ene bada</u>, zer da hau?! / Ez dakit, ba, <u>gaixoa ni!</u>, zer egingo dut? Interjekzio edo interjekzio-lokuzioetan.</p> <p>17. FDAk lau urte eman zituen haragia, esnea, <u>eta</u> <u>abar</u>, laborategietan aztertzen. “ETA ABAR” koma artean jarri behar da, esaldiaren barruan doanean.</p> <p>18. <u>Horrela</u>, ezin daiteke defendatu klonazioa. (=Beraz, ezin daiteke defendatu klonazioa) (lokailua) <u>Horrela ezin daiteke</u> defendatu klonazioa. (aditzondoa, galdegai) Esanahi desberdinak bereizteko.</p>
<p>Puntu eta koma ;</p>	<p>1. Osasun-arazoak dituzten klonak elikagaien katetik baztertzen dituzte, beste abereekin gertatzen den bezala; beraz, ez dute aparteko arazorik sortzen. Ahozko pausaldi ertainak adierazteko. Puntua ere jar daiteke, pausaldia luzea izatea nahi badugu.</p> <p>2. Bereziki, alderdi hauek aztertu dituzte: haragiaren eta esnearen osagaiak eta nutrizio-ezaugarriak, ohikoekin konparatuta; osagai berriak egoteko aukera; aberearen osasun-egoera; eta alergia sortzeko arriskua, pertsonaren adinaren arabera. Zerrendako osagaien batek atal bat baino gehiago duenean.</p> <p>3. Azterketekin jarraitu dute eta, duela gutxi, joan den urteko iritzia berretsi dute; <u>hau da</u>, pertsona ez diela inongo kalterik eragiten ondorioztatu dute. Testu-antolatzaile asko puntu eta komaren ondoren joaten dira (edo, batzuetan, puntuaren ondoren), ondoan koma dutela: ; hau da, ... ; alegia, ... ; hots, ... ; hain zuzen ere, ... ; batez ere, ... ; bestela esanda, ... ; adibidez, ... ; esate baterako, ... ; aitzitik, ... (eta antzekoak)</p> <p>4. Abere klonatuak hazten dituzten enpresek interes handia dute euren produktuak merkaturatzeko baimena izateko; <u>adibidez</u>, Estatu Batuetako enpresa batzuek onartu dute legez kanpoko produktuak saldu dituztela. Abere klonatuak hazten dituzten enpresek interes handia dute euren produktuak merkaturatzeko baimena izateko, <u>adibidez</u>; Estatu Batuetako enpresa batzuek onartu dute legez kanpoko produktuak saldu dituztela. Testu-antolatzaile batzuek puntu eta koma behar dute, aurreko esaldi-zatiarekin ala ondorengoarekin doazen bereizteko.</p>

<p>Puntuak</p> <p>•</p>	<p>1. Elikagaien segurtasunaz arduratzen diren erakundeek adierazi dute ez dagoela arazorik abere klonatuen produktuak jateko. Seguruak omen dira. Alabaina, denak ez datoz bat txostenean azaldutakoarekin. Herritarrek ez ezik, etikan aditu direnek ere zalantzak dituzte. Ahozko pausaldi luzeak adierazteko.</p> <p>2. <u>Alde batetik</u>, abere klonatuen produkzio egokiak gosea gutxitu omen dezake. <u>Beste alde batetik</u>, kontsumitzaileek errezelo handia dute halako produktuak erosteko. Testu-antolatzaile asko puntuaren ondoren joaten dira (edo, batzuetan, puntu eta komaren ondoren), ondoan koma dutela: Alde batetik, ... Beste alde batetik, ... Lehenengo, ... Ondoren, ... Gainera, ... Azkenik, ... Dena dela, ... Hala ere, ... Nire ustez, ... Dirudienez, ... Beraz, ... Orduan, ... Ondorioz, ... Horregatik, ... Hori dela eta, ... Izan ere, ... Lehenago, ... Gaur egun, ... Geroago, ... Laburtzeko, ... Hitz gutxitan esanda, ... (eta antzekoak)</p> <p>3. Denak al datoz bat txostenean azaldutakoarekin? <u>Oraingoz</u>, badirudi kontsumitzaileek ez dutela begi onez ikusten halako janariak merkaturatzeko aukera. Ez da punturik jartzen, ez galdera-ikurraren ostean (?), ez harridura-ikurraren ostean (!), ez hiru puntuen ostean (...).</p>
<p>Bi puntuak</p> <p>:</p>	<p>1. Hainbat alderdi aztertu dituzte: haragiaren eta esnearen osagaiak, nutrizio-ezaugarriak, osagai berriak egoteko aukera, abereen osasun-egoera eta abar. Adibideen edo zerrenden aurretik.</p> <p>2. Gai honetan, bi ikuspegi ditugu aurrez aurre: <u>alde batetik</u>, ez omen dago osasun-arazorik abere klonatuen produktuak jateko; <u>beste alde batetik</u>, ostera, zientziaren etikan aditu direnek zalantzak dituzte. Bi atal edo gehiagoko sailkapenak aurkezteko.</p> <p>3. Kaixo, Jon: Gutunen hasieran.</p> <p>4. EFSAk argitaratutako txostenak zera dio: “Klonazioz sortutako animaliek besteek baino askoz osasun-arazo gehiago izaten dituzte”. Aipamen zuzenen aurretik.</p> <p>5. Zalantza horiek guztiak argitu egin behar zaizkie kontsumitzaileei: abere klonatuen produktuak kontrolatu egin behar dira eta ondo etiketatuta merkaturatu. Denok dugu oso estimu handian giza baliorik emankorrena: maitasuna. Esaldiaren aurreko zatia argitzeko, azaltzeko, laburtzeko edo frogatzeko.</p> <p>6. Eta honela esan zion sorginak neskari: — Elkarriketetan, norbaitek esango duena aurkezteko.</p> <p>7. XIX. mendeko eleberria: ohiko pertsonaien estereotipoak. Izenburuetan, kontzeptu nagusia eta alderdi zehatza bereizteko.</p>
<p>Hiru puntuak</p> <p>...</p>	<p>1. Azterketa gaingaitzen ez badut... <u>Hobeto</u> horretan ez pentsatzea. Pentsatzen ari naiz... <u>onartu</u> egingo dudala lan hori. Beharbada..., bihar..., etzi..., baina joango naiz. Beharbada..., bihar..., etzi...; hala ere, ez ezazu aldaketa handirik itxaron. Hobeto pentsatuta...: ez naiz joango. Hiru puntuen ostean, letra larriz zein xehez idatz daiteke, jarraipenaren arabera. Koma edo puntu eta koma edo bi puntuak ere idatz daitezke hiru puntuen ostean.</p> <p>2. Nahi duzue egin dezakezue: pin-ponean jokatu, telebista ikusi, “play”arekin jolastu... Bukatu gabeko zerrendetan jartzeko, “eta abar”en orde. (Ez erabili “eta abar”ekin batera)</p> <p>3. Ez dakit esan edo ez esan... Ez dakit zer egin. (zalantza) Zera..., ba..., nahi duzu nirekin dantza egin? (suspensea) Zalantza edo suspensea adierazteko.</p> <p>4. Gero, bonba atomikoak bota zituzten Hiroshiman eta Nagasakin... Badakizue zelan amaitu zen gerra. Urruneko intxaurrak hamalau...; tira, ez da hainbesterako izango. Amaiera jakineko esaldiak amaitu barik uzteko.</p> <p>5. Handik lasterrera jotzen hasi zitzaizkion, eta odola zerion ahotik... Nahiago dut ez kontatu. Amaitu nahi ez ditugun esaldiak eteteke.</p> <p>6. Hau dio Sarrionandiak: “... Geozentrismoa, gainera, antropozentrismoarekin erlazonaturik dago, antropozentrismoa etnozentrismoarekin, eta etnozentrismoa egozentrismoarekin...”. Hau dio Sarrionandiak: “Geozentrismoa, gainera, antropozentrismoarekin erlazonaturik dago [...]. Alegia, unibertsoaren imajina bati loturik aurkitzen ditugu pentsamendu okzidentalaren zutabeak”. Hitez hitzeko aipuetan, zerbait kendu dugula adierazteko. Kendutakoa erdikoa denean, kortxete artean jartzen da.</p> <p>7. Hoa p... hartzera eta utz nazak bakean! Hitz zatarrak edo iraingarriak osorik ez idazteko.</p> <p>8. Agian bai..., agian ez... Zeuk igarri! Intonazioa luzatzeko edo igotzeko.</p>